

AZKOITIA / Liburu Truke Azoka egingo dute Kontzejupean, bosgarren urtez

Bihar, 11:00etatik 13:00etara, liburuak trukatzeko aukera izango da eta hurrei liburuak oparituko dizkiete

I. ELORZA

Pasa den apirilaren 2an izan zen Haur Liburuen Nazioarteko Eguna. IBBY Gazteentzako Liburuen Nazioarteko Batzordearen ekimenez ospatzen da eguna, Hans Christian Andersen idazlea jaio zeneko urtemugaren harira. Aurten, Aste Santuko oporraldian egokitu denez, Azkoitian urtero egiten den V. Liburu Truke Azoka biharko atzeratzea erabaki zuten antolatzaileek. Beraz, Kontzejupea liburutegi bihurtuko da bihar, ordu batzuez.

Hala, 11:00etatik 13:00etara bitartean, herritarrek etxean dituzten liburuak Kontzejupera eraman ditzakete, beste batzuekin trukatzeko. Haurren kasuan, marrazkiak egiteko aukera izango dute bertan eta, trukean, liburuak jasoko dituzte opari.

Liburuaren Eguna Floreagan

Floreaga Ikastetxeak Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko egitaraua prestatu du, gaurko. Liburuen erakusketa egingo dute eta liburuak zozkatu eta trukatu dituzte LHko eta DBHko ikasleek. Antzerki emanaldiak, dantzak, abestiak, eta irakurraldiak egingo dituzte egunean zehar, eta Juan Bautista Mendizabal herriko kronistak hitzaldia emango du.